

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2018/11/21

Saila	Laburpena	
Obrak	Informazioa eskatu du Tiburtzio Anitua 2 zenbakian eraikiko den igogailu publikoari buruz.	Egiten ari dira Tiburtzio Anitua eta Karlos Elgezua kaleen arteko igogailua, eta aurreikusita dago Gabonetarako bukatuta egotea.
Zerbitzuak	Bizilagun batek galdetu du ea bankuren bat jar daitekeen Azpiakutuen Ospitaleko arkupeen inguruan.	Ospitaleko arduradunei baimena eskatu ondoren, adierazi zuten ez dutela egoki ikusten banku horiek instalatzea, arkupeetako korridorera ematen duten kontsultetan artatutako pazienteen intimitatea errespetatzeagatik.
Zerbitzuak	Galdetu du ea kimatu daitekeen Wenceslao Orbea 8-10 zenbakietako eraikinaren parean dagoen zuhaitza. Adierazi du adarrek etxea ikutzen dutela ia eta zikinkeria sortzen dutela.	Zuhaitzak ikuskatu dira, eta egiaztatu da inausketarik behar ez duten zedroak direla, egoera onean daudela eta ez dutela zikinkeriarik eta arriskurik sortzen, eta, gainera, ez dutela inor molestatzen.
Zerbitzuak	Wenceslao Orbea inguruko bizilagun batek salatu du Amañarekin lotzen duen igogailu publikoaren garbiketa eskasaz, batez ere, bertarako sarbidean. Esan du amaraunez beteta daudela.	Agindua eman zitzaion Mankomunitateari inguruaren aldizkako garbiketa bat egiteko.
Obrak	Eskatu du arrapala edo igogailu bat eraikitzea Berdintasunaren Pasealekua Amañako gasolindegiarekin lotzeko, Unibertsitateko tren-geltokiaren parean.	Proiektu bat idatzi da Torrekuaren eta Berdintasunaren Pasealekuaren artean igogailu bat eraikitzeko. Aurreikusita dago hurrengo urteetan egitea.
Obrak	Eskatu du terraza bat eraikitzea Wenceslao Orbeako 1 eta 17 zenbakien gainean, inguruan gertatzen diren itoginak konpontzeko.	Zoladura iragazgaitz bat aplikatzea pentsatu da. Balorazio bat egingo da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Wenceslao Orbea inguruko argiteria publikoa hobetzea 1 eta 17 zenbakien artean. Dioenez, argi gutxi daude.	Urte honetan zehar, Amaña osoko argiteria publikoa LEDera aldatu da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2018/11/21

Saila	Laburpena	
Obrak	Galdetu du ea nola dagoen Berdintasunaren Pasealekuaren lurzorua, Tiburtzio Anitua 4 ingurutik Amañako gasolindegiraino, aldatzeko proiektua.	Gune horretan berritu egin da pasealekuaren zoladura. Obrak apiril eta abuztu artean egin ziren.
Alkatetza	Informazioa eskatu du Torrekuako anbulatorioko eraikinari erabilera emateko planei buruz.	Lokalaren jabetza Udalera pasatu zen joan den urrian. Izapide hori eginda, prozesu parte-hartzaile bat egingo da, beren zerbitzuak eraikin horretan emateko interesa duten enpresek, entitateek edo elkarteek beren zerbitzuak eskain ditzaten. Ondoren, behin betiko baloratu eta erabakiko da zer erabilera eman Torrekuari.
Obrak	Bizilagun batek esan du Karlos Elgezua 2 zenbaki parean espaloia oso estua dela. Eskatu du zabaltzea, ez duelako lagatzen gurpildun-aulkiak pasatzen.	Igogailuaren obrarekin konponduko da.
Udaltzaingoa	Eskatu du Karlos Elgezua 2 kalean, puntu hori Amañarekin lotzen duen kalezuloa, noranzko bakarrekoa izatea.	Leku horretan trafiko gutxi dagoela-eta, ez da komenigarritzat jotzen noranzko bakarrera aldatzea. Gainera, toki horretan igogailua eraikitzen ari denez, ikusi beharko da nola geratzen den gunea behin lanak amaitu ondoren.
Udaltzaingoa	Salatu du ibilgailu batzuk debekatutako noranzkoan irteten direla Amaña 12-14an.	Maniobra hori egiten duten ibilgailuak bertan dauden garajeetatik irteten direnak izaten dira nagusiki. Maniobra hori ikusten denean, salatu egiten da. Halaber, agindu behar zaie garajeetako titularrei bertako irteeran

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2018/11/21

Saila	Laburpena	
		seinalizazioen bat jartzeko, argi lagata ezin dutela debekatutako noranzkoan ibili.
Zerbitzuak	Eskatu du lur azpiko edukiontziak jartzea Tiburtzio Anitua 2 zenbakiaren parean. Ezingo balitz, daudenak lekuz aldatzea planteatzen du.	Edukiontzien kokapena Udalaren eta Mankomunitatearen artean adostuta dago, gunee guztiak har ditzaten eta bilketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin; beraz, kokapen hori ezin da aldatu.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du ea zer egingo den Amañako igogailu berriaren eta Tiburtzio Anitua 1 zenbakiaren artean geratuko den espazioan.	Igogailura sartzeko plazatxo bat izango da.
Udaltzaingoa	Eskatu du elbarrientzako aparkaleku gehiago jartzea Bustindui kalean.	Gaur egun, kale horretan bakarrik plaza bat dago desgaitasuna duten pertsonentzat, 4 zenbaki parean. Kalearen konfigurazioa dela eta, ez da erraza plaza gehiago egokitzea, izan ere, aldaparekin, erabiltzaileek arazoak izango lituzkete ibilgailuetatik irten eta sartzeko. Dena den, aztertzen ari da beste plazaren bat egokitze aukera.
Obrak	Salatu du, Bolintxo dendaren pareko galtzadan, Tiburtzio Anitua 8 kalean, zulo bat zabaldu ondoren, estali egin dela gunee hori gainerako galtzada baino gorago utzita.	2020ko asfaltatuen proiektuan sartuko da.
Alkatetza	Galdetu du ea noiz egin ahalko den zerbait Aurrekontu Parte Hartzaileen harira.	Hasi dira ekintza batzuk egiten, nagusiki, landa-auzoetan. Aurreikusi da zenbait erabaki hartzea, eta espero dugu

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2018/11/21

Saila	Laburpena	
		urtea amaitu baino lehen aurrekontu osoa ekintza zehatzekin kontsignatu ahal izatea.
HIRIGINTZA	Informazioa eskatu du Eraikinen Azterketa Teknikoari buruz.	EIT dokumentua, izenak dioen bezala, teknikari batek eraikina ebaluatu eta bertan egon daitezkeen akatsak detektatzean datza, horiek konpondu eta eraikinaren bitzta erabilgarria hobetzeko Legeak ezartzen du, eta betebeharrak bat da 50 urtetik gorako bizitegi-eraikinentzat eta dirulaguntza eskatzen dutenentzat. Informazio gehiago izateko, Udaletxeko Hirigintza sailera jo daitezke.
Zerbitzuak	Kexu da estolderien estalkiak oso irristagarriak direla.	Gehiago zehaztea eskatzen da.
Zerbitzuak	Ziriako Agirre 10 zenbakiko bizilagun batek eskatu du lore gehiago jartzea.	Loreak landatu ziren, baina ez ziren lurrera moldatu. Berriz ere landatuko dira.
Zerbitzuak	Salatu du baldosa batzuk solte daudela Ziriako Agirre kaleko espaloian, 8-10-12 zenbakien parean.	Konpondu ziren.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2018/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Kexu da Ziriako Agirre 12 zenbaki pareko iturriak ez duela ura ondo jasotzen. Adierazi du ura inguruan geratzen dela eta, izotza denean, jendea labaindu egiten dela.	Martxoan, garbitu egin zen iturria. Gainera, eskatu zaion udal lantaldeari soluzio bat eman diezazion iturriari ondo jaso dezan ura, hala, inguruak ez daitezen irristagarri egon.
Zerbitzuak	Eskatu du Bustindui 14 osteko hustubidea zabaltzea edo, hala behar izanez gero, sarriagotan garbitzea, ura sartzen delako gertuko garaje batean.	Mankomunitateari abisua eman zaio garbiketa egin dezan.
Obrak	Galdetu du ea noizko dagoen aurreikusita Bustinduiko obra.	Balorazio bat egin da. Obraren exekuzio-data, aurrekontu-disponibilitatearen arabera izango da.
Hirigintza	Informazioa eskatu du bizilagunen komunitateetan igogailuak jartzeko dirulaguntzen inguruan.	Udalak urteak daramatza bizitegi-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzak ematen (instalazio berria, zero-kota, ordezte...). Udalaren webgunean dago urtero egiten den dirulaguntzen deialdiari buruzko informazio guztia. Komunitate interesdunek Hirigintza Sailera jo dezakete informazioa modu zuzenagoan jasotzeko. Halaber, dirulaguntza berri bat sortzeko lanean ari gara, espazio publikoen urbanizazio-obrak egiten laguntzeko, beharrezkoak direnak, eraikin pribatuen irisgarritasuna hobetzeko.
Obrak	Eskatu du Amaña 2-6 kaleko hustubide-kanalaren sareta estaltzea, oinezkoen igarobidea eragozten duelako.	2020. urterako konponduko da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2018/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Kexu da Amaña 8 zenbakira igotzek aldapa labain egoten dela, besteak beste, ibilgailuek olio galtzen dutenean.	Kasu puntual horietan, abisua eman behar zaio Mankomunitateari garbiketari ekiteko.
Zerbitzuak	Galdetu du ea bi banku jar daitezkeen Torrekuako anbulatorioko eraikinaren arkupeetan.	Ospitaleko arduradunei baimena eskatu ondoren, adierazi zuten ez dutela egoki ikusten banku horiek instalatzea, arkupeetako korridorera ematen duten kontsultetan artatutako pazienteen intimitatea errespetatzeagatik.
Udaltzaingoa	Salatu du Corte Ingleseko semaforoetan dagoen bihurgunea gehiegi estutzen dela.	Bihurgune hori eraiki zenetik, era guztietako ibilgailuak ibili dira bertatik (baita kamioiak eta autobusak) eta ez da gorabeherarik izan.
Zerbitzuak	Bizilagun batek galdetu du ea Berdintasunaren Pasealekuko paperontziak urrundu daitezkeen bankuetatik.	Paperontziak bankuen ondoan daude, besteak beste, erosoagoa izan dadin erabiltzaileentzat , eta, baita ere, hirigintza-diseinuagatik.
Zerbitzuak	Kexu da Amaña 6 zenbakiaren ostean dena orriz beteta dagoelako eta, gainera, arbolek hor ez dutela ezertarako balio.	Lorzainek jakinarazi dutenez, Wenceslao Orbeako platanondoak inausten hasten direnean, aprobetxatuko da Amaña 6ko atzealdeko akazietako adarrak inauteko.
Hirigintza	Artegieta 7 komunitateko ordezkariak salatu du dirulaguntza ukatu zaiela fatxadak hobetzeko, eraikin horretan dauden udal jabetzako etxebizitzek ez dituztelako betetzen beharrezkoak diren baldintzak.	Udalak etxebizitzak egokitzeko beharrezko lanak egin ditu.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2018/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Jakinarazi du Udalak Arregieta 7 komunitateko ordainketa batzuk zor dituela.	Komunitatearen ordainketa gehienak eguneratuta daude dagoeneko. Hala ere, aholkularitza zerbitzua eskaintzen duen enpresak eskatu beharko lioke Udalari falta ahal diren ordainketak egiteko.
Alkatetza	Kexu da Arregieta inguruan saihebidetako sortzen duen zarata dela-eta. Zarataren aurkako panelak jartzea eskatu du.	Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera egin zitzaion.
Alkatetza	Salatu du ez zaiela informaziorik eman Arregieta 7 komunitateko bizilagunei Eusko Jaurlaritza etxebizitza batzuetan egiten ari diren obrei buruz.	Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailari eskatu zitzaion bizilagunei behar besteko informazioa emateko.
Hirigintza	Jakinarazi du Arregieta 7 komunitateko udal jabetzako etxebizitzaren isolamendua eskatu dela eta adierazi du esan zaiola ez dela egingo.	Arregieta 7 eraikin berrientzako isolamendu-baldintzak arautzen dituen Kode Teknikoa indarrean sartu aurretik eraiki zen, eta ez zaie aplikatzen lehendik dauden eraikinei.
		Komunitateak eraikina "hobetzeko" lanak egiteko erabakia hartuko balu, Udalak komunitatekide bat gehiago balitz bezala parte hartuko du, legeak ezartzen dituen betebeharrak betez.
Alkatetza	Kexu da Arregieta 7 eraikineko 3. solairuko atea urratuta dagoela duela urte batzuk udal jabetzako pisu batera egin zen mudantzagatik. Konpontzea eskatu du.	Eibar-Ermua Gurutze Gorriari berriz ere eskatu zaio egoera konpontzeko, kalteak Elkarteari lagatako etxebizitzetan egindako etxe-aldaketen ondorioz sortu baitziren.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2018/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Eskatu du Tiburtzio Anituako espaloian 21 eta 25 zenbakien artean dauden baldosa solteak konpontzea.	Lanak 2019ko ekainean egin ziren.
HIRIGINTZA	Bustindui 7 zenbakiko bizilagunen salatu dute ALFAko konpresoreak zarata handia egiten duela.	2019an zehar, hainbat ikuskapen egin dira, eta MINTECH enpresari, instalazioaren jabeari, zarata-emisioak murrizteko neurriak hartzeko eskatu zaio. Azkenean konpresorea aldatu dute eta haren irteera berbideratu.
Zerbitzuak	Eskatu du aldatzea Karlos Elgezua 7ko eskaileren aldamenean dagoen eskubanda. Azaldu du pintura solte dagoela eta urratu egiten dituela eskuak.	Eskubanda aztertu eta egiaztatu da egoera onean dagoela eta ondo finkatuta. Dena den, lixatu eta pintatu egin da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek salatu du Karlos Elgezua parean dagoen iturrian, duen formagatik, berdiña agertu dela.	Martxoan, garbitu egin zen iturria. Gainera, eskatu zaion udal lantaldeari soluzio bat eman diezaion iturriari ondo jaso dezan ura, hala, inguruak ez daitezen irristagarri egon.
HIRIGINTZA	Kexu da ALFA fabrikatik irteten diren kearen usainagatik.	Hainbat ikuskapen egin dira keen emisio-fokuen jatorria antzemateko. Ikuskapen horiek Eusko Jaurlaritzan alta emanda daude —Jaurlaritzaren baita kontrolak egiten dituen—, eta bat bera ere ez dago parametroetatik kanpo.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2018/11/21

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Salatu du Amañako elizaren ondoan dagoen parkea egoera txarrean dagoela eta eskatu du baten bat estaltzea.	Haur-parkeek etengabeko mantentze-lan prebentiboa dute. Mantentze-enpresak egindako txostenetan, ez dago jasota inolako akatsik antzeman denik.
Hirigintza	Informazioa eskatu du Ospitale berriaren ingurunerako dauden planei buruz.	Ospitalearen inguruan, jarduketa-unitate bat dago, industrialara, eta aurreikusita dago lehendik dagoen eraikina eraistea; horren orde, eraikin berri bat egingo da, ibaiarekiko 7 metroko distantzia errespetatuko duena (ospitaleko pasealekua luzatuz). Halaber, aztertzen ari gara leku horretan dagoen tximinia mantendu edo birkokatze modua.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Artegieta 7 zenbakiko bizilagun batek jakinarazi du liztor asiarrak daudela inguruan. Batzuk leihoetara etortzen dira.	Baten batek liztor-habia baten berri ematen duen bakoitzean, egin beharreko egiaztapenak egiten dira eta abisu ematen da habia erretiratzeko.
Zerbitzuak	Artegieta kaleko argiak berrikustea eskatu du.	Artegieta argiteria aztertu ondoren, kanpo-argien araudian mugen barruan aurkitzen da. Nolanahi ere, Artegieta 7ko fatxadan eta Artegieta eta Asola-igartza arteko bidegurutzean farola bat jarrita osatuko da argiteria.
Zerbitzuak	Salatu du arazoak daudela etengabe Bustinduitik Asola Igartzara doazen eskailera mekanikoetan.	Leku horretako eskailera mekanikoen kateak, eskubandak eta beste elementu batzuk aldatu dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña

DATA: 2018/11/21

Saila

Laburpena

Zerbitzuak

Azaldu du Artegietan inguruan dauden arbolekin zomorro pila bat Aurreikusita dago azarotik aurrera arbola horiek inautea, eta horrekin egoera konpontzea.